



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 13 Urtea || 1931'ko Garagarila || 150 Zenbakia. || :—

## Paduako Antonio Deuna

### Paduako Antonio Deunaren Aurzaroa



ORTUGALIKO Ulisipona uriburuan jaio zan, Paduakoa esaten diogun, Antonio deuna, 1195 urtean, dagonilaren 15'an.

Jatofiz aundizkiak ziran aren gurasoak eta eskumende aundikoak: aita, Martino izenekoa eta ama, Maria.

Efialde artako aundizkien artean oi zanez, jaio eta zortzigaren egunean bataiatu zuten noski eta Ferdinando Martino eman zioten izena.

Antonio deunak zenbat senide izan zituenik ez dakigu. Bere afeba Maria, bizitza zuen eta jainkozkoaren buruan, *monja* il omen zan eta eriotzeko orduan bere anai deuna eta Asisko Prantzisko deuna agertu omen zitzazkion.

Pernando txikiaren lenengo urteak, bere amaren ondoan, guziz zorionekoak eta jainkozkoak izan ziran. Txiki-txikitandik erakutsi zuen elizarako zaletasun aundia. Aur geienak utskerri eta atseginzale

izan oi dira; bañan Pernandok elizan ibiltzen eta praie-etxeak ikusten izaten zuen pozik aundiena.

Egunero joaten zan meza entzutera; eta bost urte besterik etzi-tuela, Zeruko Ama guziz garbiaren aurrean, bere bizitza guzian garbi bizitzeko itza eman omen zion Jaungoikoari. Eginkari afigafia orixe! Ordutik erakutsi omen zuen Jaunaren mirabetzan osoro sartzeko go-go bizia.

Beartsuentzat guziz biozpera zan, eta poz aundia ematen zion, bere eskutxoak, zerbaitez beterik, beartsuak luzatzeak. Beraz esan daiteke, Job deunak bere huruaz esaten zuena: *Atsekabetuenganako erukitasuna txikitandik izan det nere biotzean eta nerekin batean azi izan da.*

Amar bat urte zituen garaian Eliz-nagusiko mutikoen artean sartu zuten bere gurasoak, lenengo ikasketak egin zitzaizkion; eta nabari izan zan beste lagun guzien artean bere ikaszaletasun aundiaz eta bere elizkoitasunaz. Guziz atsegin izaten zuen elizako lanetan ibiltzea.

Garai artan egin zuen bere lenengo afigafia. Elizarako bidean etsaia agertu omen zitzaion; eta ura aienatzeko, ormako ari zurian gurutzera egin zuen eta, argizari biguñean bezela, irafirik utzi zuen gurutzearen irudi agurgafia.

*Ereñotzu*

*Paduako Antonio deunaren eunurtea Euskaleñan.* Euskaldunok Bizkaiko Urkiolamendin dadukagu gure Padua. Mendeak zear, an erakutsi izan diote euskaldunak beren sinismen eta maitetasun bizia Santu mirari-egileari; an egin izan dizkiote beren eskabide kartsuak. Zenbat atsekabe samin arindu ote ditu Antonio deunak, bere egon-leku goi artan ¡Zenbat ondasun edatu alde guzietara!

Bidezkoa da beraz, euskaldunok berari gure eskefona erakustea bere eunurte ontan. Alaxe nai du ere gure Gazteizko Gotzai jaun guziz argi-agurgafia; eta Batzordea egin du, aurrean Urkiolan egin berar diran elizkizun eta jaiak arautu eta zuzentzeko.

Erakutsi dezaigun bada gure eskefona Urkiolako gure *Santuari* eta biotz-biotzez eskatu dezakiogun guziok, piztu eta indartu dezala Euskaleñaren sinismena, sendotu ditzala euskaldunen biotzak, beti zuzenbidetik ibili gaitezen.

E.

---

Ilabete onen amairugafen egunean Meza bat emango da  
ZERUKO ARGIAREN irakurle, ta ongile guztien  
alde, Antonio Santuaren aldarean.

---



Paduako Antonio Donea (*Murillo*)

# Ezkontza garbiaren garaitasuna

## III Ezkontzaren garaitasuna beritzeko bideak

### 1 Jainkozko bizitza

Bide zuzenetik atera diran, gauzak ezin daitezke lenengo izakerara eta beren izateari dagokionera itzuli, zuzentasun osoaren eredu dan Jaungoikoaren asmora biurtuaz ezpada. Jaungoikoak egindako gauzak zenbat eta zuzenago dirauten beren lenengo izakeran, aibat eta dira ongariago. Gizonaren gaiztakeriak lenengo zuzentasun ortatik ateratzen ditularik, on izatea galdu eta kaltegarri izaten asten dira.

Beraz ezkontzari dagokionez, bearezkoa da Jaungoikoak zertarako egin izan zuen gogoratu eta ezkondu guziak asmo oren arauz bizitzea.

Geienetan lizunkerri neurri gabea izaten da ezkontzaren legeak autsia bere burua Jaungoikoaren menpeko egiten ezpadu. Griña gaizto oren indarra menperatzeko bada bearezkoa dute ezkonduak, biak batera, Jainkoari lotsa eta maitasunik aundiena ekartzca, beren bizitza guztian.

Eta ezkontzako legeak zintzo betetzeko biderik onena, beařenetakoa, Jaungoikoari otoitz egin eta Elizako Sakramentuak alik maizena ta biotz onez artzea da.

### 2 Irakaspede ona

Jaungoikoaren legen arauzko bizitza egiten ezpada, etzaio kristau ezkontzari beritze iraunkora ekariko. Oretarako ordea, bear-bearezkoa da guziak makurik gabe, eta argi ezagutzea lege oiek zer-nola-koak diran.

Ezkontzako legeak nork berak, izatezko adimen-argiaz asmatu eta erabaki bear balitu, makurkeri aunditan eroriko litzake gizona, bere griña gaiztoak eragiñik.

Jesu Kristo gure Jaunak Eliza eman digu egiaren eta zuzenbidearen irakasletzat; eta ezkonduak aren mendean bizi bear dute, aren esan guziak zintzo egiten dituztelarik, sinismenari eta gizabideari dagozkion gauza guztietan.

Ezkontzaren ondatzaleak itzez eta idazkiz, liburu eta paper gaiztoen bidez, aletin guzia egiten dute, adimenak naasi, biotzak galdu, garbitasuna irigaritzat eman eta loikeria goreszteko. Areago Gotzaiak (Obispoak) berak eta apaiz eta gizon jakintsu ta zuzenen bitartez, egiñala guzia egin bear dute, okerkeriaren orde, egia erakusten eta garbitasunaren edertasuna andietsiarazten.

### 3 Ezkontzaren gorespena

Alare ez da naikoa Elizaren irakaspenik onena ere ezkonduak Jaungoikoaren legearen arabera bizitzeko. Irakaspen orezaz gañera, bearezkoa da ezkonduak gogo bizi izatea lege ori zintzo betetzeko: bata bestea lagunduaz, zintzotasun garbian biziaz, batasuna beñere etengabe begiratuaz, ezkontzak ematen duen eskubidea neuriz eta kristauki erabiliz, batez ere ezkon-berian, geroago bearturik arkituko bala, garbitasunean erezagot bizi al izateko.

*Izan bezate beti gogoan artutako Sakramentuaren oroipen eragikora. Gogoratu bezate maiz Sakramentuaren bidez bizibide ortarako goratuak e/la sendotuak izan dirala, eta bere indarak beti irauten duela. Ezkonduak bizi diran bitartean beren batasuna Sakramentua da.*

*Bañan Sakramentuak bere indar guziaz eragin dezan, ezkonduak egiñala egin bear dute, nork bere eginkizunak betetzen. Ez bezate bada ezkonduak gaitzesi beren baitan duten, indar ori. Eta neke aunditan arkitzen diralarik, berpiztu bezate, Jaungoikoak ezkontzekoan eman dien, grazia, esker ori.*

*Ezkondu ondoko zorionaren ala zoritxararen iturburua, aurzarotiko aziera ona ala txarra da. Gazte-gaztetatik ikasi bear da griña markurak lotzen, arokeria eta berekoikeria menperatzen, zuzentasunean bizitzen, nekeak eta naigabeak biotz onez eramaten.*

*Ezkontidea arinkerian autatu baño len, ondo begiratu bear da, nor dan, bizitza guzirako artu bear dan laguna, Jaungoikoa, egiazko Kristoren jaurespidea, erlijioa, nork bere ona, ezkontidearena, sendiarena, gizartearena eta eriaarena gogoan arturik.*

*Egiatzko maitetasunak eragiñik, joan bear dute ezkontzara Jaungoikoak nai duena bakarrik egiteko asmoan. Eskatu bezakie gurasoai beren iritzia eta onespena eta ez bezate bazterera utzi aien aolkua eta burubidea.*

#### 4 Lege zuzen eta egokiak

*Eguneroko bearak estaltzeko aiña ez izateak etxekoen zuzentasunari kalte aundia egin lezakiok. Oregatik gizarteko legeak, sendi-buruak bere burua, emaztea eta curak elikatzeke aiña irabazteko eran, zuzendu bear lirake. «Langileak irabazia du bada bere saria».*

*Alare ezkontideak ezkondu aurretik ere alegiña egin bear dute etorkizuneko bearak estaltzeko edo beintzat arintzeko bidea egiten.*

*Eta baldin sendiaren bearak, irabaziak baño aundiagoa balira, aurak ugariak diralako edo irabazteko gauza ez dalako, beste kriisauak biotz onez lagundu egin bear dute, eta baita eriak ere.*

*Erialdeari on zaio etxeak ondo zuzenduak, arautuak izatea, lurreko ondasunetan ezezik, gizabidean ere. Oregatik erien buruak lege zuzen eta egokiak egin bear dituzte ezkonduen arteko zintzotasuna ongi begiratzeko. Etxeak gaizki dabiltzen erietan bada, egiazko aurerape-nik eta zorionik ezin daiteke izan.*

*Erien buruak, berak bakarrik ez dezakete begiratu gizarteko zuzentasuna, Elizaren laguntza gabe. Oregatik eriak betearazi egin bear ditu Elizak emandako legeak.*

*Jaungoiko gure launak emango al die argia eta indara kristau guziaz, ezkontzako Sakramentuaz esan ditugun, gauza guziak onetsi eta zintzo betetzeko; etxe guzietan izan dedin Jaungoikoarentzako ugartasuna, zintzotasun garbia, sendotasun iraunkora, zuzentasun zindoa eta zorion osoa.*

*(Ex Lit. Enc. «Casti connubii»)*

Ataungo Bonifazio A. O. M. C.

# LANDARETXO AMESLARI!!



Lorategiko lili txurien aizpa oztiñak  
lastandu zuten landaretxoa erne zedin  
ernemin beroz eman zizkion udaberiak  
ofian ainbat urin zerien lore-pinpin.

Oñiak ainbat usai gozozko lore-pinpiñak  
margo bikaiñez jantzi zizkion uztargiak;  
t'egun uratzez mendi gañetik lastan epelaz  
zabal zizkion pipil xamufak eguzkiak.

Zabal zizkion leñuru batez pipil-ofiak...  
Dirdir zegiten lore-kolkoak intz-tantoaz...  
gira ta bira pinpilipauxa jostalariak  
loretik lore liluratuak pozik doaz.

Zoratu dira pinpilipauxa margolariak...  
Dantzan ari da euskal-zozoa txotx batean.  
Buñun biziaz leyar xakona txukun mizturik  
erle politak erdi-gordeta ofi-pean.

Uñ darie, urin gozoa lore-kolkoak;  
lastan damaie aize ariñak jostalari...  
¡Ta ibai-ertzean pozkaien mende zama joriaz  
landaretxoak egunik egun amets dagi!...

Zama joriaz landaretxoak  
landaretxoak amets dagi:  
«Edertasunak jabetzat naute,  
lorategiko nagusi ni»

¡Landaretxoa, landaretxoa!  
zure ametsak... Amets zoroa!..  
¿Noletan zure amets-gezuña?..

¿Ez al dakizu azken-aduñña?..  
¡Landaretxoa, landaretxoa!  
zure ametsak... Amets zoroa!..

Esnatu zaitetz alik lasteren  
odei azuna eldu baño len...  
esnatu garaiz gaxoa!..

Bařendu zazu sakon sustrayak,  
sendotu laixter lore ofiak...  
indartu zaitetz naikoa!

Entzun nuen ail tontor ostean  
ortots zořotz bat tximist tartean  
erařo beltzen ořoa!..

Esnatu zaitetz, esnatu, ařen!  
ekaitz gaiztoa eldu baño len!..  
¡Esnatu garaiz gaxoa!..

Orain ¿zer dakust?.. ¡Zugaitz ezufa!..  
¡Lorien ordez... ofi zimuřa!..  
Adar-ertzetan txinagořa!..

Nigan ¿zer dakust?.. Odei mingotza!..  
¡Naigabe latzen arantz zořotza!..  
¡¡Au, bai, esnatze gogofa!..

Loramendi

# JAKINBEARAK

XIV

## S. Joseren zazpi igandeak

Noiz egin bear dira Jose Santuaren Igan-deak? Deboziyo ofi emanak dauden induljentzi oyek irabazteko, urte guziko edozein igandetan egitea berdin da: baño zazpi igandeak ezezkoan izan bear dute, bata bestea- ren ondotik, tartian bat ere utzi gabe. Gañera konfesioa, komuniua ta Aita Santuaren intentziora otoitz pixkat egin bear da.

## Dantza lotuak

Jauna, kezketan nago! Nere ustez ni dantza- ra joaten naizen bakoitzean ez det pekaturik egi- ten. Zer egingo det bada?

Baño afigafia da zuk diozuna: zergatik bada konfesatzea zoazen bakoi- tzean dantzan ibili zerala esan? Ta zergatik ba, etzera Jauna artzera joaten pekatu ori konfesatu gabe?

Ardoak ez du gaitzik egiten batbatean, poliki-poliki ari da bafena us- teltzen, ta egunero ez mozkortu afen, egunen batean azalduko da miña.

Zuk ez dezula pekaturik egiten? Egia ote al da? Nere ustez beste gauza da noski. An entzuten dituzun itzak, ikusten dituzun zikinkeriak, egiten di- tuzun keñuak, poliki-poliki zure bafena usteltzen ari dira. Asieran gofi-gofi jartzen ziñan mutilen afean olako gauza oyekin, ta orain ez: *zer esan nai- ko ote du orek?* Zure anima zakartzen ta gaixtotzen ari dala.

Gañera ez al da gaixtakeri naikoa, oitura txar oiei laguntzea? Ta zuk dantza aietara joan ta, pekaturik ez egin afen, ez al dituzu laguntzen? Jesu- kristok ez du noski arpegi ona jafiko toki oyetan zabiltzan bakoitzean...

## Biraoak entzutean zer egin?

Nere mutil maite ori: Poztutzen naiz zure gal- deraz. Al ba dezu ez lotsik izan, gaurko mutil as- kok izaten duten bezela. A! ze seme dituan asko- tan Jesukristo gure Aitak! Zakufa, bere nagusia jotzen dutela ikusten due- nian, «aunka» asten da, ta bere nagusiaren alde ateratzen da... Ta gaur... kristau askok, beren inguruan Jesukristoren kontrako birao edo itz gaixto izugafienetakoak entzun afen, ixil-ixilik gelditzen dira, lotsatu egiten dira ta. Ez olakorik egin, gazte maitea.

Al ba, dezu zure aurpegia Jesukristoren alde atera zazu eta esan zazu zuk ere: «Bedeinkatua izan bedi Jesukristo»

Bestetan bai ta ere «belafi ondoko» bat ematea on izango litzake ixiliaz- teko, edo bestela bai ta ere gaztigatu edo denunziatu dezakezu efiko agin- tariari edo Guardia Zibilar, multa eman dezayoten. Ez bildufik izan ori egi- teko. Jaungoikoak ordainduko dizu egunen batian bere alde egiten dezuna; ta ez lotsatu: bestela ba-dakizu Jesukristok esan zuana: «Nitaz lotsatzen ba zerate, ni ere egun batean zuetzaz lotsatuko naiz»...

Donostiar Gabriel A.




# Adoro Te

(Ex Cantuale Romano-Seraphicum 1929)


Donostiar Joseba And. A'k ereskidetua

(Schola ad lib.)

Ad - ó - ro te de - vo - te, la - tens Déi - tas Quæ sub his fi - guris ve - re



la - ti - tas: Ti - bi se cor me - um to - tum súb - ii - cit, qui - a te con -



DANAK

tem - plans to - tum dé - fi - cit. A - ve Je - su! pas - tor fi - de - li - um



A - dau - ge fi - dem óm - ni - um in te cre - dén - ti - um A - - - men.



## Adoro te devote.

Agur, agur Jainko ezkutatua,  
Ardo-ogi antzpean or altxatua:  
Zure-zurea da nere biotza.  
Zu gogoratzeaz txoratzen da-ta.

(DENAK)

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea:  
Bizkortu guri fedea  
Afen iguzu. Amen.

Zentzuak aditu ezin zaituzte  
Bañan entzute utsak siñets diteke:  
Sinesten det Kristok esan guzia.  
Ezin utsegiña bai ta aren itza.

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea... etc.

¡Gurutzan gorde zan Jainkotasuna,  
Emen bai ta ere Gizatasuna:  
Alere nik biok ditut aitortzen  
Ta lapur onaren eskea egiten.

¡Gora Jesus Artzaitxo gurea... etc.

Zauririk, Tomak.lez, ikusten ez tut,  
Ta alere Jainkozkó aitortzen zaitut.  
In dazu nik beti Zu sinistea.  
Zugan ustea izan, zu maitatzea.

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea.. etc.

Jaunaren eriotz-oroikafia.  
Bizia demazun Ogi bizia:  
Zutzaz bizi bedi nere gogoa  
izan zakizkio ezti gozoa.

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea.. etc.

Jesus biotz bera, oi! efukitu.  
Ta zure odolaz garbi nazazu:  
Tanta bat aski da, ixuri zazu,  
Ta gure kutsuak txautuko ditu.

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea.. etc.

Orain estalia or zauden, Jauna,  
¡Afen gerta betik opa dedana.  
Zeruan aúrez-aur zu ikustea,  
Zure edertasunaz pozkidatzea.

¡Gora Jesus! Artzaitxo gurea.. etc.

Urtsuya.

Eresi au Belgica'n eta Holanda'n betikoa dela diote. Batzuek apaldi edo koplak abesten dituzte: guziok erantzunpena ematen dute azkeneko itz oiekin: ¡Ave Jesu!





MAREN beste egin bear bat, umetxoen utse-gite ta biurikeriak zuzendueraztea da: ta ez bedi gertatu guratso askorekin gertatzen da-na. Beren umetxoak biurikeriren bat egiten duenean, pozle ta paferagile iruditzen zaie, ta ez dute aintzat artzen. Oso gaizki egiña deritzait au, umetxoen biotza zenbat eta bigu-ñago, ainbat ezi eřazago bai da.

Begira zer dion Ecclesiasticus Liburu San-tuak: «Fili tibi sunt? *Erudi illos et curva illos a pueritia illorum*, Se-meak ba dituzu? Beren aurtzarotik erakutsi ta amor-eginiñazi. (obedi-tuerazi) «(Eccl. VII, 25). Zenbat eta geiago umeari barkatu, ainbat okeřago izango da. Batez ere afokeriari gogor egin litzaioke, gaurko egunean geiena nabaritzen dan ajea auxen bai da. Esan diteke ludiaren (munduaren) erdian jauretsirik dagoan Jauna auxe dala: afokeria, aun-di naikeria.

Onek agintzen du goiko maletan, onek bekoetan; oneri agur egiten diote aundiak eta txikiak, aberatsak eta beartsuak: ori da na-gusi uri buru oztetsuetan, ta ori eři koxkor baztartuetan. Soñeko apa-ñegiak autsi, jantzi nabarmenak eře ta kiskali, zenbait pařa-pařako diru ondatze galazi, ta beartsu agertzeko lotsak uxatu nai izango ditu-zu bear bada, etxekoandre zintzo ofek. Ona ba emen zure lantegia: aipatutako gaitz oriek sendatzeko, beren sorlekura jo bear dezu: ta ba dakizu zein dan iturburu ori? Afokeria, auxe da etxetik bota bear dezun etsaia.

Ekin, ba, oneri; sakalatu, txautu, ta atera bei-beitik, sakon-sako-netik landare gaizto ori, bere buru ařo goizalea beñere geiago jaso ez dezan. Landare kutunari inguruan jaiotzen zaizkion belar gaiztoak ne-kazariak maiz kentzen dizkion bezela, alaxe jardun bear du etxeko-andreak jořa ta jořa, bere umeetan oartzen dituen aje ta griña txafak: batez ere guzien artean nagusiena dan afokeria sustraikatzen (zañe-tik ateratzen). Ta nora joko ote degu izufirik txafena bañe bildurga-fiago dan gaitz inpernutar au sendatzeko?

Eři koxkořetako sendakitegiak utzi ta, uri aundietakotara joango ote gera? Ebanjelioko Sendakitegian bakar-bakafik arkituko dugu gaitz ori, aundi naikeri gořotografia, sendatzeko bear degun sendagaia.

Ortxe Ebanjelio Santuan, lorategi baten erdi-erdian, bere lore-


txoak zerurontz zabaldurik dauzkan landare polit zoragari baten antzera, arkituko du etxeoandreak bere umeai aundi naikeriaren kaltez (kontra) beren baiteko bufuka latza ta erukigabea egiñaziko dien esan on bikaiñ au: «Quicumque humiliaverit se sicut parvulus iste, hic est major in regno coelorum, (Nath. XVIII, 4) Aurtxo txiki au bezela apal (umil) egiten dana auxe da aundiagoa zeruetako ekeinuan».

Ona sendagaia, ta ez nolanaikoa, ez edozeñek asmatua, zerutik Iesusek berak ekaia bezala, ezin ohea. Suak ura itzaltzen duan bezela, otza beroak aienatzen dun antzera, afokeria umiltasunak azpiratzen du, ta aundi naikeria txikitasunaz ezereztutzen, gauza bakoi-tzaren ondagaia bere etsaia bai da. Ofengatik ba afokeria edo soñeko apañegiak eskatuz, edo bera baño goragoko maletan bizi diran lagunekin ibili naiaz edo beste nolabait galurtu naiaz, belari mutufa umetan erakusten asi dedin bezain laster, atera bekio ama bidera, goratu nai ori txafetxiaz, Jesusen aipatutako esan-ona begien aurfear jartzen diola, Jaun aundi onek bere burua ezin geiagoraño beiratu ta apalduaz Belengo estalpetik Kalbario mendiraño erakutsi diguna, aztu gabe. Auxe bakaia da afokeriaren ta onen ume tzar guzien sendagaia.

Esan bezaie ba etxeoandreak bere umeai, beiko maletan bizitzea, beartsu izatea ta agertzea, ta lan egitea, lotsagari ez dala, au guzia gure Jaunak egin zuanez gero. Zer siñespide edo afazoi aipatu diteke au baño sarkoagorik?

Bestera beartsua izan ta aberats itxuraz agertzea, perkala ordaintzeko ez izan ta af-eunez (sedaz) jaztea, auxe bai egitan lotsagaia ita pařagaia! Onelakoentzat egunero iñauteri (iote).

**Goñi'tar Julian, Apaiza.**



*Mixin erneak begi txofotxaz  
laxter dakus or sagua;*

*boñan araño nondikan nora  
joango ote da katua?*



# MISIOAK

Simón Beragaluze

## Peruko berriak

### Amazonasko oyanetik

Intzako Damaso A. Ag.

**E**RE Aita agurgafia: Barkatu aufetik nere alperkeria... Ba dakizu zein dan beti alpefaren leloa, «lanak ezin garaitzea» eta ori gertatzen zait neri ere Amazomasko baso ilun eta oyan ikaragafietan...

Osasuna dala ta Yurimaguas baño gorago dagon uri batera bigali naute, aizeak aldatuz obekixeago arkituko ote naizen edo...

Len 170 metro goratasun zeukan efialdean negon: orain befiz 600 metro goratasun daukanean, au da Tarapoto...

Eguraste gozoa beti, naiz Ekuadofean egon...

Emengo jendeaz zerbait esan bear nizula ta ortara nijoa oraingoan...

Iru alderdietara dago berezirik emengo jendea. Zuriak, ilunkarak (indi bertakoak) eta txuri-beltx edo nastuak: danak efietan bildurik, basoetan ez len bezela...

Txinatar batzuek ere ba dira, salerosketari argiak...

Ibai baztefetan daude «Hazienda» edo deitzen dioten etxaldeak, eta danak zurien eskuetan. Lufalde ez beste guztiak nagusi gabeko lufak dira...

Eta nork jakin nondik eldu ziran jatoriz emen bertan bizi diran efialde bereziak? Orain arte ez du inork asmatu.

Eriak berexten ditutana izkuntza da, (Euskaldunak ori ondo dakigu). Ofi begiratu ta emen mota askotako efialdeak arkitzen ditugu.

Zenbaitzuk diotenez emergo mintzaerak ama bat omen dute, bañan ori eñaz esana besterik etzait iduritzen.



Iribetegi'tar Akellin Aba C. P.

idazten ez ta irakurtzen etzekiena gañera.

Emengo misiolariantzat beahezkoena «Ketxua» da: bai dira alderdi auetan 3 miloitaraño minizatzen diranak.

Ori dala ta Peruko azken Eliz Batzafean Gotzai Jaunak Eskatu zuten ketxuerazko Kristau Ikasbide bat ta elizkizunetan ketxeraz egiteko, lotsagafia bai da bereartako semiak ainbeste izan ta ketxueraz ez idaztirik ez eta inolako ofirik ere argitaratzea...

Onera eldu diranak berealaxen ketxu izkuntzari lotzea oberen, eta oñekin bakarik emengo eginbidea zintzo bete dezakete.

Lenagoko edestilariak emengo lenagoko mintzaera zafa «Ketxa» zala esaten digute: bañan Peruko Efegezafak (emen Indak deitzen ziran) etzuten oyan auetan eskubiderik.

Gero asi ziran Medialekoak (auk basak ziran) efietara etortzen beren salerosketak egitera eta bereartakoak ikasi zuten basatien izkera polita.

Beranduago sartu zan espaniera eta Latefi onen omenezko izkera egin zan.

Beste mintzairak ere etofi ziran: Brasilgoak, Prantzerak eta Perukoak eta bai ta Juduak eta txinañak ere. Denen artean naste bofaste galanta, bañan espaniaña beti nagusi (mintzotera nagusia-oficial) eta gero (Ketxuera)

Indiañen artean non nai arkintzen dira bi, iru ta lau izkuntz dakizkietenak. Igaz ezagutu nuen lau izkera ederki zekizkien inditar bat: eta ez



Yurimaguas'ko eliza beñla

Or dijoaz argazkitxo batzuek: basoetan moztutako zur (txara lerden eta luziak) ibaiez ontzi edefetan jetxitzen dira eta gero Eliza (noizbait Kate-drala izango dana auxen) goratzeko ederki etortzen zaizkigu.

Eliz eder ori Aita Jauregi Lafabetzuko semiak jaso du.

Agur, Aba maitea; otoi nitaz eta Jainkoak eman dezaizula beraren aintzarako bear dezun laguntza.

Zere otoitzetan ez aztu zure adixkide

Iribertegi'tar Akilin A.

Tarapoto (Peru) 1930-Lotazilaren 25'ean.

## ANDRE MARIRENGANAKO EGIAZKO JAIERA

### Seigaren Ageraldia

#### Jaiera onen ondoren arigariak mirabe zintzoen baitan

Espiritu Santuak, Andre Mariren bitartez emango dion argiaz, mirabe zintzoak ezagutuko du bere ezereza eta ustelkeria; eta Andre Marik emango dio bere apaltasuna.

Lufean izan dan sinismenik biziena Andre Marirena izan da. Zenbat eta maiteago duen Andre Mari, ainbat eta garbiago eta kartsuago izango da mirabe zintzoaren sinismena.

Maitetasun Edefaren Amak kenduko dizkie bere mirabe zintzoai kezka eta bide gabeko beldur guziak; eta beren biotzak zabaldu eta maitetasunez beteko ditu, auferakoan, maitetasunak eragiñik, eta lasatasun onean ibili ditizen zeruko bidetik. Ez dute geiago Jaungoikoarendako beldurik izango, maitetasuna eta usteona baizik.

Jaungoikoarekiko eta berarekiko usteon aundia emango die. Ez dira bada geiago Jesu Kristorengana bakafik urbilduko, Andre Mari, beren Amaren bitartez baizik. Eta diran eta duten guzia berari eman diotelarik, beldurik gabe esan dezakiokete Andre Mariri: «*Tuus sum ego, salvum me fac: Ni zurea naiz, begira nazazu*». Gañera Andre Marik ere bere ondasunetatik ugari emango die; eta beroietaz orniturik ikusten dituela, Jaungoikoak guziz atsegin izango ditu.

«Bakoitzaren baitan izan bedi Andre Mariren *Anima* Jaungoikoa goratzeko; bakoitzaren baitan izan bedi Andre Mariren gogo, Jaungoikoaren baitan poztutzeko: *Sit in singulis anima Mariae, ut magnificet Dominum, sit in singulis spiritus Mariae, ut exultet in Deo*» (S. Amb.) «Etofi bedi Andre Mariren efegetza, Jesu Kristorena iritxi dedin».

Andre Mariren mirabe zintzoak diranak Jesu Kristo bere baitan izango dute. Andre Mari da bada Jesu Kristo arkitzeko eta aren irudi izateko biderik erosoena ta zuzenena.

Andre Mariren mirabe zintzoak, jaiera onen bidez, Jesu Kristo gure Jaunari ilabetean ospe aundiagoa ematen diote, beste edozeinen bidez urteetan baño. Gauza guziak Andre Marirengatik egiten dituztela bada, beren asmoak utzi eta Andre Marirenak artzen dituzte berentzat; eta asmo oiek Jaungoikoak atsegiñago ditu santu guzienak ere baño.

Apaltasun aundiagoa erakusten dute, beren irabaziak gutxietsirik, Jesu Kristorengana Andre Mariren bitartez urbiltzen diranak; eta Jaungoikoak biotz apalen gorespenak ditu atsegiñena.

Gure egite on guziak Andre Mariri ematen badizkiogu, gure Ama maiteak bere eskuetan artu eta ederturik eskeñiko dizkio Jaungoikoari; eta gure Jaunak askoz ere atsegiñago izango ditu, geren eskuz eskeñiko bagenizkio baño.

Elisabet santuak goretsi zuenean, siñistu zuelako zoritsua zala esanaz, Andre Marik Jaungoikoa goretsi zuen: «*Magnificat anima mea Dominum: nere animak Jaungoikoa goresten du*» (Luc., I, 46). Ala egiten du guk goresten degunean ere. Ofegatik Andre Mari goresten, maitatzen eta ospatzen degunean, bere bitartez, Jaungoikoa goretsi, maitatu eta ospatzen degu; eta geren buruak Andre Mariri eskeintzen dizkiogunean, bere bitartez, Jaungoiko gure Jaunari eskeintzen dizkiogu.

Ataungo Bonifazio A.

## Malko tantoak

*Nere lengusu Salaberia'tar Estanis'i  
bere eriotz egunean.*

Beti bezela egun sentian  
begiratu det leiotik,  
eta biotzak txoil samindurik  
negar egin du gogotik.

Befi samiña bai dit ekafi  
egun befi goibeldunak,  
nola utzi ez malko mardulak  
musu zapian bilduak?

Eriotz beltz ta lotsagabeak  
ilundu digu biotza;  
lengusu baten gorputz gaztea  
utzi bai digu il-otza.

Ementxe dago zure lo gelan  
zure oitxoa otz-otza:  
ezin zaitezke geigo etofi  
gu ikustera onuntza.

Ortxen dauzkatzu guraso, anai,  
eta lengusu maiteak;

laun zerukoak idiki bitza  
danontzat goiko atea.

Biyar goizean il-obiraño  
danok gerade juango:  
eta azkeneko laztan gozoa  
antxen dizugu emango.

Zure emazte ta umetxoan  
artean dagon itzala  
Goiko Jaunaren esku biguñak:  
afen! onetsi dezala.

Zutzaz oroitzen naizen  
bakoitzean,  
nola ez naiz jariko  
otoitzean?  
Umeak beltz jantzirik  
ikustean,  
enel au naigabea  
biotzean...

IRUZUBI.


# Ikasi..! Ikasi..!



5

Zapatagiñarena  
ara lenengoa,  
argiki agertzen da  
nun daukan gogoa.  
Saltzea nai du beti  
ark oñetakoa,  
t'iru anka parekin  
ofa gizonkoa.

Gizona eder bada  
iru esku parekin,  
ederagoa zaigu  
esku lafuekin.  
Ilia dirdir eta  
bigotiak luze,  
bestiak nai duena  
ikusten dezute.



6



Irugañena bai da  
gizon buruzkoa,  
iru buru argikin  
ara gizontxo.  
Lepo batetik dauzka  
onek iru buru:  
zapelak salduzkeko  
ondo asmatu du.



Arin ta alai dijoaz  
bat egin ta irurak,  
Jaunai erakustera  
beren asmaketak.  
Ikusirik aurfan  
alako itxura,  
korde gabe geldi zan  
katan deabrua.



Itsusiak itsusi,  
ta edefak eder  
Jaungoikoak ba daki  
zer egiten duen.

**Afayozko Artzaña**